



# RASFF TXOSTENA

## ANIMALIEN ELIKADURA

### ALERTAK ETA



Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria

Jakinarazitako arriskuen tipologia

Tartean dauden lehengaiak eta pentsuak


Eranskina. Laburpen-taula

**2020ko BIGARREN LAUHILEKOA** >

### JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2020ko bigarren lauhilekoan, animalien elikagaiekin lotutako **69 jakinarazpen** egin dira; **horietatik 5 alertak izan dira, 46 informazio-jakinarazpenak eta 18 mugan egin diren ukapenak.**

Egindako kontrol motari dagokionez, **20 jakinarazpen Mugako Ikuskapen Postuek (MIP)** igorri dituzte; **31**, berriz, pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako **kontrol ofizialek**; eta **18** industriaren beraren **autokontrolatan detektatu dira.**



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Epe horretan, **69 jakinarazpenetatik 28tan** (% 41), kaltetutako produktuaren jatorria hirugarren herrialde bat izan da. Hauek dira jakinarazpen gehienetan tartean izan diren hirugarren herrialdeak: Argentina (6) eta Erresuma Batua (4).


**Argentina**ri dagozkion jakinarazpen gehienek lotura dute kakahuetetan aurkitutako B1 aflatoxinarekin. **Erresuma Batua**ren kasuan, jakinarazpen gehienak etxeko animalientzako janari izoztuan aurkitutako mikrobiologiagatik (*Salmonella* eta enterobakterioak) egin dira.

RASFFri **jakinarazpen gehien egin dizkieten herrialdeak Alemania eta Belgika** izan dira (**bakoitzak 6 jakinarazpen**).

### JAKINARAZITAKO ARRISKUEN TIPOLOGIA

Aldi horretan detektatutako arrisku gehienak **mikrobiologiarekin** lotuak izan dira (**% 46**), eta horien atzetik **daude mikotoxinekin lotuak, zehazki, B1 aflatoxinekin (% 14)**.


Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, **salmonellak eragin ditu jakinarazpen gehien (33 jakinarazpenetatik 28)**. Salmonella, batik bat, lehengai hauetan detektatu da: **arrain-irinak, animalien proteina prozesatuak, sojaren deribatuak eta etxeko animalientzako janari gordin izoztua**.



**TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK ETA PENTSUAK**

Produktuen arabera, **lehengai**ei dagozkie jasotako jakinarazpenen **% 73**, **etxeko animalientzako pentsuei % 17**, **gehigarri eta aurre-nahasketei % 7** eta **kontsumorako animalientzako pentsu konposatu eta osagarri**ei **% 3**.

Jakinarazpenetan zerkusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira: **sojarekin egindako produktuak (12)**, **arrain-irina (7)**, **txakurrentzako mastekagarriak (4)** eta **koltza-irina/opilak (3)**.



**Eranskina.** RASFFren bidez 2020ko 2. lauhilekoan animalien elikadurari buruz egin diren alerten eta jakinarazpenen laburpen-taula.

ARRISKUA	MOTA	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.	ESPEZIEA		
Mikrobiologia	Salmonella	28	Arrain-irina	1	<i>Salmonella Anatum</i>		
				1	<i>Salmonella Livingston</i>		
				1	<i>Salmonella London</i>		
				1	<i>Salmonella (presentzia / 25 g)</i>		
			Soja-irin ekologikoa	1	<i>Salmonella Liverpool y Salmonella Mbandaka</i>		
			Soja-babak	2	<i>Salmonella Agona</i>		
			Soja-opila	1	<i>Salmonella (presentzia / 25 g)</i>		
			Expeller soja	1	<i>Salmonella Jerusalem</i>		
			Ekilore-irina	1	<i>Salmonella Typhimurium</i>		
			Ekilore-pelletak	1	<i>Salmonella Senftenberg</i>		
			Ekilore-opila	1	<i>Salmonella Senftenberg</i>		
			Koltza-irina	1	<i>Salmonella (presentzia / 25 g)</i>		
			Txakurrentzako mastekagarria	1	<i>Salmonella Rissen eta Salmonella Typhimurium</i>		
				1	<i>Salmonella (presentzia / 25 g)</i>		
			Animalien proteina prozesatuak	5	<i>Salmonella (presentzia / 25 g)</i>		
				1	<i>Salmonella Isangi eta Salmonella Ohio</i>		
			Etxeko animalientzako janari izoztua	1	<i>Salmonella (presentzia / 25 g)</i>		
			Txakurrentzako haragi txikitu izoztua	1	<i>Salmonella Paratyphi B (Java barietatea)</i>		
			Arkume-irina	1	<i>Salmonella (presentzia / 25 g)</i>		
				1	<i>Salmonella Bovismorbificans eta Salmonella Mishmarhaemek</i>		
			Artoa	1	<i>Salmonella Infantis</i>		
			Etxeko animalientzako pentsuak	1	<i>Salmonella Ohio</i>		
			Indioilar-haragia	1	<i>Salmonella (presentzia / 25 g)</i>		
			Enterobakterioak	4	Arrain-irina	2	
					Etxeko animalientzako janari gordin izoztua	2	
			Onddoak	1	Ekilore-irina	1	

ARRISKUA	KOP.	MOTA	PRODUKTUAK	KOP.	
<b>Mikotoxinak</b>	10	B1 aflatoxina	Kakahueteak	4	
			Txorientzako kakahueteak	3	
			Azalik gabeko kakahueteak	2	
			Kakahuete-ale zurituak	1	
<b>PATak</b>	2	Lurreko animalien hezur-zatiak	Baratzuri-granuluak	1	
		Arriskutsu gisa espezifikatutako materiala	Animalientzako 3. kategoriako azpiproduktuak	1	
<b>Metal astunak</b>	8	Beruna	Manganeso sulfato monohidratoa	1	
			Bazka-legamia	1	
			Magnesio oxidoa	1	
		Fluorra	Amonio fosfatoa	1	
			Fosfato monokaltzikoak	1	
			Zinka	Txakurrentzako pentsu dietetiko osoa	1
			Iodoa	Usoentzako pentsu gehigarria	1
Artsenikoa	Txerrikumeentzako pentsu gehigarria	1			
<b>Dioxinak eta PCBak</b>	3	Dioxinak	Zink oxidoa	2	
		Dioxinak eta dioxinen antzeko poliklorobifeniloak	Palmaren gantz-azido destilatutako	1	
<b>Baimendu gabeko substantziak</b>	6	Pentsuentzako baimendu gabeko gehigarria Kanabidiola (CBD)	CDB olioak	2	
			Katuentzako pentsu gehigarria	1	
			Kalamu-barrak	1	
		Pentsuentzako baimendu gabeko gehigarria E 324 Etoxikina	Pentsuarentzako gehigarri karotenoidea	1	
			Izkira-irina	1	
<b>Fitosanitarioen hondakinak</b>	2	Zipermetrina	Garagarra	1	
		Klorpirifoak	Ekilore-haziak	1	
<b>Beste batzuk</b>	5	D3 bitaminaren eduki handia	Txakurrentzako pentsu osoa	1	
		Zianuroaren eduki handia	Linazia	1	
		<i>Ambrosia spp.</i>	Ekilore-irin ekologikoa	1	
		Olio mineralaren presentzia	Behi eta zaldientzako pentsuak	1	
		Aizundu izanaren susmoa (etiketatu gabeko urea: % 0,96)	Legamia lehor inaktiboak	1	